



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2010-03-10

VIII. URTEA 1948. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Gurrutxaga anai-arreben lan saritua urrian argitaratuko dute

**AMEZKETA** Etxepare Saria jaso berri dute 'Alex nire munstro-lagun on-ona' izeneko albumagatik

**SARIA** Lana euskaraz Pamielak argitaratuko du eta gaztelaniaz eta galegoz, berriz, Faktoria K de libros-ek 4



Mikel eta Maite Gurrutxagak landa eremuan bizi den Ixabelen eta Alex bere lagunaren istorioa prestatu dute. I. GARCIA



Kolonizazio garaitik ustiatutako meategien labirintua gordetzen du Cerro Ricok; 15.000 potosiarrek egiten dute lan bertan, umeak tarteko. A. BELAUNZARAN

## Bihar iritsiko da Emakumeen Mundu Martxa Tolosara, etzi berriz, Leitzara

**GIZARTEA** Aurtengo Emakumearen Nazioarteko Eguna astelehena egokitu zen; honen harira aste guztian zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte 3

## Argentina iparraldetik oinez, Boliviako errealitatera

**BERROBI** Agurtzane Belaunzaraneke bertan bititakoak bildu ditu kronika batean 6-7

## Laskorainek sailkapeneko lehenengo postuan sendo jarraitzen du

**Kirola** » Partida borrokatu eta berdindu baten ostean, Urretxuren aurka 3-2 irabazi zuten horitxoek.

### ERREDAKZIOA

Lehenengo postuan irmo jarraitzen du Laskorain areto futbol taldeak, eta are gehiago Urretxuren aurkako asteburuko garaipena eta gero. Azken sailkatuaren aurka jokatu arren, partida berdindu eta borrokatua izan zen, baina azkenean etxean geratu ziren puntuak 3-2ko markagailuarekin irabazi baitzuten horitxoek.

Norgehiagokaren hasieran, bi taldeek zonakako defentsa kantraxaratu zuten baina baloi lapurketetan finago ibili ziren goierriarrak eta kontraeraso arriskutsuak burutu zituzten. Horrelaxe iritsi zen aurkari lehendabizikoa, gelditu bikainak egiten ari zen arren, Endikak amore eman behar izan baitzuten baurkariren aurka bakarrik geratu ostean. Horitxoek barloia sarean sartzeko aukera ugari izan bazituzten ere, atsedendira 1-0ekoarekin iritsi ziren.

Bigarren zatiko lehen 10 minutuetan bikain aritu ziren tolosarrak, eta Lander, Joseba eta Iñigok gol bana egin zituzten. Partidako azken minutuetan, azken ahalegin batean, urretxuarrak estu hartu zituzten horitxoak eta gol bakarrera gerturatu ziren. Dena den, joko moteltzen ederki asmatu zuten Laskoraingoek eta presioa handitzean atezainarekin jokatuz ederki moldatu ziren.

### Laskoraingo taldeak «bikain»

Partida amaitzean markagailuak erakusten zuen 3-2koari esker sendo jarraitzen dute Ikastolakoek sailkapeneko aurreneko postuan. Datorren astean ere, beraz, «inolako presiorik gabe eta konfiantza zein gogoz» aurkariari aurre egiteko prest daude.

Partidaz partida geroz eta jendetsuagoa den Usabalgo zaleen aurrean garaile irten ziren, Javi ordezkaria, Jorge eta Javi entrenatzaileak, Imanol prestatzailea, Endika, Beñat, Iñigo, Lander, Barriola, Gil, Elola, Illunbe, Giller, Mikel eta Aratz jokalariek.

Euren garaipenaz gain, gazte txoen taldeak ere oso ondo aritu dira, guztiak partidak irabazita itzuli baitira etxera.

# Gabino Diego aktorearen abestiak, errezitaldiak eta bakarrizketak, etzi Leidorren

**Kultura** » Udalak antolatuta, Ahoz Aho Jaialdiaren barruan kokatzen da; 20:30ean hasiko da emanaldia.

### ERREDAKZIOA

Gabino Diego aktorearen *Una noche con Gabino* umorezko ikuskitumaz gozatzeko aukera izango da etzi, Leidor aretoan, 20:30etik aurrera. Tolosako Udalak antolatutako emanaldia da eta Asvinenea elkarteak bultzaturiko III. Ahoz Aho Nazioarteko Jaialdiaren barruan kokatu dute. Olerkiak errezitatu, abestu eta bakarrizketa irudimentsuak eskaintzen ditu Diegok umorezko show honetan.

Gabino Diego aktore madrildarra ondoen ezagutzen duen papera irudikatuko du etziko emanaldian, Gabino Diego berarena, hain zuzen. Bi ordu inguruko saioan bere aurpegi egiazkoena, atsegina eta xumeena erakutsiko du. Hala, bere errealitate gerturaten gaitu aktoreak bakarrizketa saioaren bidez; bera nerabe zenean zituen ametsen inguruan ariko da, eta pixkanaka pixkanaka amets horiek errealitate bilakatzen nola joan ziren azalduko du. Aktore izateko ametsa egi bilakatzen joan den arren inoiz ez duela ahaztu nor den eta nondik datorren kontatuko du, horri garrantzi berezia ematen diolarik.

### Ahoz Aho Jaialdiko beste emanaldiak

Bakarrizketa saio hori Ahoz Aho Jaialdiaren barruan sartu dute. Hain zuzen ere, bihurtik igandera bitarte Euskal Herriko nahiz munduko txoko askotako hainbat kontalari ariko dira Tolosan, Villabonan eta Adunan. Memoria historikoa du ardatz Asvineneak antolatzen duen ekimenak «ahoz-kotasunak memoriaren isla bezala berebiziko garrantzia baitu».

Pasa den larunbatean izan zen aurtengo jaialdiko lehen ekitaldia. Hain zuzen ere, Kandelen Argipean taldeak *El oraculo de los cuentos* emanaldia eskaini zuen Tolosako Triangulo plazan. Bihar arratsaldean hiru saio izango dira Tolosan, Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroan, Amarrotzen eta San Estebanen.



Gabino Diego aktore madrildarra. HITZA

### » DATUAK

#### 'Una noche con Gabino'

- **Non.** Leidor aretoan.
- **Noiz.** Etzi, hilak 12, 20:30ean.
- **Aktorea.** Gabino Diego.
- **Zuzendaria.** Gina Piccirilli.
- **Testuak.** Gabino Diego.
- **Eszenografia.** Ana Garay.
- **Sarrerak.** 16 euroren truke eskuratutako ahalak dira, Leidor aretoaren leihatilin zinema orduetan edo emanaldia hasi aurretik, edota, Servikutxa, Telekomutxa eta Internet bidez [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)-en.

#### AHOZ AHO JAIALDIA Bihar

- **Ana Griot eta Jhon Ardila.** Madrildik eta Kolonbiatik datoz. Tolosako Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroan izango da, 16:00etan.
- **Iñaki Carretero.** Amarrotzen, 18:00etan, euskaraz.
- **Mercedes Carrion eta Jerman Argueta.** Perutik eta Mexikotik

datoz. Emanaldia Tolosako San Esteban auzoan, 19:30ean.

#### Etzi

- **Ixabel Millet.** Saioa Amarrotzen izango da, 18:00etan, euskaraz.
- **Mariano Martínez.** Villabonako Obaba tabernan, 23:00etan.

#### Larunbata

- **Kandelen Argipean.** Tolosako Bonberenean, 11:30ean, euskaraz.
- **Aritz Sound Sistem, Maisha MC eta Invert.** Ahoz-aHIP Ahoz-aHOP, 18:00etan, Tolosako Kultur Etxean.
- **Ana Griot eta Jhon Ardila.** Madrildik eta Kolonbiatik datoz. Tolosako San Estebanen, 19:30ean.
- **Ipuin Motxen Gala.** Asvinenean, Adunan, 22:30ean.

#### Igandea

- **Iñaki Carretero.** Saioa Tolosako Bonberenean izango da, 11:30ean.

## Iragarki laburrak

#### LANA

■ **Sukaldaria.** Sukaldari, zerbitzari, okin edo gozogle bezala lan egingo nuke. Deitu 662 49 40 78 telefono zenbakira.

■ **Etxeko lanak.** Eskualdeko emakumea goizez etxeko lanak egiteko prest dago. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 600 7164 76.

## Luzarragari eta Maputxe herriari buruzko hitzaldia izango da bihar

**Gizartea** » Askapenak antolatuta, Kultur Etxean izango da; euskal idazlearen egoera izango dute hizpide.

### ERREDAKZIOA

Asel Luzarragaren bahiketari buruzko eta Maputxe herriaren egoeraren inguruko hitzaldia izango da bihar Askapenak antolatuta. Kultur Etxeko areto txikian izango da jardunaldia, 19:00etan.

2009ko abenduaren 31ko arratsaldean, lehergailu bat aurkitu zuten Txileko La Araucania eskualdeko Justizia idazkaritzan. Atentatuak huts egin zuen, gailuak ez zuen leher egin, detonazio mekanismoak hutsegitea izan zuelako. Hau gertatu eta ordu batzuk beranduago Asel Luzarraga euskal idazlea atxilotu egin zuten Padre Las Casas-en, bera bizi den hirian, atentatuaren egilea bera zela leporatuz. Beste hiru atentatu ere lotzen dute.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolos.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbol:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak...

*Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Emakume Palestinarren inguruko hitzaldia izan zen Rosa Temiñoren eskutik. L. TERRADILLOS

## Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, oraindik ekitaldi ugari gurean

**Gizartea** » Gaur 19:00etan Villabonan hitzaldia izango da eta bihar 18:00etan Mundu Martxa Tolosako Zerkausira iritsiko da.

### ERREDAKZIOA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira ekitaldi ugari izan ditugu egun hauetan eskualdean. Baina oraindik beste horrenbeste geratzen dira. Eguna astelehenean izanagatik, aste osoan zehar, aldarrikapenerako ekitaldiak izango dira. Herri askotan, ostiralean afaria edota larunbatean bazkaria egingo dute eta bestela, hitzaldiak, dantza emanaldiak, musika, filma...

Hitzaldiak, mahai-inguruak eta bestelako ekitaldiak ari dira ospatzen herri askotan eta atzo bertan Tolosako HHI-EPAk eta Ikasleen Elkarteak antolatuta, Rosa Temiñoren hitzaldia izan zen. Biladi palestinar kultur elkarteak lehendakaria da Temiño eta emakume palestinarren inguruan hitz egin zuen.

Emakumeen Mundu Martxa ere bihar bertan iritsiko da Tolosara. 18:00etan Zerkausian egingo zaio ongi-etorria eta hurrengo egunean berriz, Leitzara iritsiko da. Bertan «2010 arrazoi martxan jarraitzeko» eta lau aldarrikapen nagusi azpimarratuko dituzte Euskal Herriko Mugimendu Feministako kideek. Emakumeek jasaten duten prekaritateari aurre egiteko jarriko dira martxan, sexuaren araberako lan banaketan



Zizurkildarrek Irun eta Hondarrabian egin zuten egun pasa. HITZA

### » ASTEAN ZEHAR IZANGO DIREN EKITALDIETAKO BATZUK

#### Albiztur

■ **Martxoak 12, etzi.** Tolosako Amets jatetxean 21:00etan, afaria. Ondoren Jone Gorostazu eta Olatz Etxeberriaren bakarrizketa. Udaletxean izena emateko azken eguna biharkoa da.

#### Leitza

■ **Martxoak 11, bihar.** *Bost zentzumenen indar erotikoa* tailerra udaletxean 19:30ean Nerea Sancho psikologo eta sexologoaren eskutik. Hitzaldira joateko izena ematea komeni da aldeaz aurretik.

#### Leitza

■ **Martxoak 12, etzi.** 18:30ean txokolata plazan eta egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bildu-

ko dituen murala pintatuko dute plazan. Arratsaldean, herriko haur eta gaztetxoek murala margotuko dute. 20:30ean ailegatuko da Mundu Martxa Leitzara, eta harriera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekabeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan daude salgai 10 euroren truke eta bihar da erosteko azken eguna. Gauean, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.

#### Ugarte

■ **Martxoak 13, larunbata.** Bazka-

oinarrizten den eredu neoliberal eta patriarkala salatu nahi dutelako. Era berean, emakumeen kontrako indarkeria gainditzeko eta beraien eskubideak aldarrikatzeko eta baita, baliabide naturalen pribatizazioaren aurka ere.

#### Dantza garaikidea Zizurkilan

Ostiralean, hilak 12, 20:30ean dantza garaikidearen emanaldia ikusteko aukera izango da Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean. Eskualdean honelako emanaldi gutxi izaten dira eta dantza garaikidea gustuko dutenentzat aukera paregabea izango da. 20:30ean hasiko da eta sarrera 3 euro ordaindu behar da.

Hiru koreografo gazte izango dira bertan: Iker Arrue, Anuska Alonso eta Igor Calonge. Espepientziadun koreografoak dira eta bakoitzak bere emanaldia egingo du.

Iker Arrueren esanetan, «...*insants que moren*, barrurantz zuzenduriko begirada eta hausnar-keta da, ekintzen artean utzitakoen geldialdi bat; gogoeten pisua, oroimenaren distortsioa, hauek hartzen duten lekua, pasatoko gertakizunei ematen diegun balioa, lehenaldiari lotzen gaituen guztia alde batera uztearen ahanztura. Oinazea onartzea aurrera egin ahal izateko aurrerako urratsa da, berriro hastekoa, behin eta berriro...» Musika berriz, Efrim Mennuck-ena izango du.

Anuska Alonso koreografoak, bere emanaldia honela laburtzen du: «Noiz galdetuko didaten desiratzen nago. Hasieran adimena taula huts bat da, ezer idatzia ez duena. Taula huts hori da oroiemena deitzen duguna. Lehen ez nuen ondo adierazten, baina orain argiago esan dezaket. Ezabaketak nahi izan ez giten naizelako dira, eta ez naiz zerotik hasiko».

Igor Calonge koreografoaren emanaldiaren sinopsia honako hau da: «Brancok esparru ez-kontzentzionalerako sormen modura aurkezten du bere burua. Behaketa ariketa bat da, asmo sakonik gabe, gizatasun eta arintasunez betea». Gabriel F. ren musika izango du lagun.

ria egingo dute Ugarteko elkartearen 13:30ean. Izena emateko azken eguna hilaren 10a da.

#### Villabona

■ **Erakusketa.** Pintura erakusketa, Gurea Zinemako erakusketa gelan. Ostirala bitarte egunero egingo da 17:00etatik 20:00etara. ■ **Gaur.** Hitzaldia izango da 19:00etatik 20:00etara udaletxeko balio anitzeko gelan, Carmen Ferrero herriko emaginak emanda. Jorrazteko gaia *Comunicando sentimientos y emociones* izango da.

#### Zizurkil

■ **Erakusketa.** Eskulanetan aritzen diren emakumeen erakusketa, Kultur Etxean.

## 'Stock and Braderie' ekimenean izena emateko azken eguna gaur

**Tolosa** » Apirilaren 10 eta 11n izango da; ohikoa baino prezio baxuagoan erosi ahalago dira produktuak.

### ERREDAKZIOA

Tolosako Merkataritza Elkarteak 'Stock and Braderie in Tolosa' izeneko merkataritza jarduerari ari da prestatzen. Apirilaren 10 eta 11ko asteburuan izango da, eta merkatariek soberakin produktuak eskaini ahal izango dizkiete bezeroei, ohikoa baino prezio baxuagoan.

Jarduera honek bi modalitate edukiko ditu, bere izenak adierazten duen bezala: Beotibar pilotalekuan izango den Stock azoka batek, eta Braderie-a, bestetik. Azken hau, soberakin dauden produktuak dendako sarrerako atearren parean egokitutako mahai batean eskaintzean datza. Komertzio guztientzat irekia dago, elkarteetako bazkide ez direnentzat ere bai. Bertan parte hartu edo informazio gehiago nahi duenak Merkataritza Dinamizazio Bulegoko 943 675 224 telefono zenbakira dei dezake edo [tolosakomerzio@gmail.com](mailto:tolosakomerzio@gmail.com) helbidera idatzi, baina horretarako gaurkoa da azken eguna.

## Laburrak

### Tolosako Frantsesetako ikasle ohien bazkaria

**GIZARTEA** » Maritxu Txapartegik eta Kristina Martijak Frantsesetan aritutako ikasle ohien bazkaria batera dei egiten diete. Apirilaren 24an izango da, Fronton jatetxean. Apirilaren 12a baino lehen 50 euro sartu beharko dira 2101 008112 0126383413 kontu korrontean.

### Kartel lehiaketa Anoetako festak iragartzeko

**ANOETA** » Anoetako Herri Ikastolako ikasleek edo Anoetan errolatutako pertsonek har dezakete parte. Kartela festetako egitarauaren liburuxkaren azala egingo da erabiliko da. Teknikariak izango da eta formatu digitalean ere aurkez daitezke lanak. Kartelean ondorengo testua agertu behar da: Anoetako Jaiki 2010. Informazioa eta xehetasunak, udaletxean bertan emango dira eta kartelaren irabazleak, 200 euroko saria jasoko du. Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira eta horretarako azken eguna apirilaren 26a izango da.

# «Liburua argitaratzean sariaren garrantziaz konturatuko gara»

**Amezketak** » Etxepare Saria jaso dute Maite eta Mikel Gurrutxagak 'Alex nire munstro-lagun on-ona' izeneko albumagatik; Pamiela argitaletxeak euskaraz plazaratuko du.

IMANOL GARCIA

Landa eremuan bizi da Ixabel. Nahiko bakarrik sentitzen da eta bakardade horri aurre egiteko Alex izeneko alegiazko laguna asmatzen du. Ixabelen gurasoek ez dute kontu hori ondo ikusten eta, kezkatuta, erabakitzen dute aldaketa bat behar duela Ixabelek eta hirira joaten dira. Zer gertatzen da orduan Alexekin?

Maite eta Mikel Gurrutxaga anai-arreba amezketarek ilustratu eta idatzitako istorio horrek jaso berri du haurrei zuzendutako albumen Etxepare Saria. 6.000 euro jaso dituzte egileek, eskubideen aurrerapen moduan. *Alex nire munstro-lagun on-ona* izeneko lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz urrian. Faktoria K de libros argitaletxeak gaztelaniz eta galegoz argitaratuko du aurten.

Maitek ilustratzaile bezala lan egiten du eta Mikel lanbidez komertziala da. Aurreko udan ez zuen lanik esku artean Maitek eta Etxepare Sariaren berri zuenez, Mikeli ipuin bat idazten joateko proposatu zion eta bitartean bera marrazten hasi zen. «Nahiko batera joan ginen lana egiten», azaltzen du Maitek. Mikelek gaineratzen duenez, «istorioaren hasiera berak eman zidan. Bazekien nondik hasi eta hari horretatik tiraka hasi ginen. Elkarrekin asko egoten gara eta bata besteari lana pasatzen genion». «Nahigabe topatzen ginen, baina bilerak bailiran bukatzen zuten», azaltzen du Maitek.

Mikelek beti izan du zaletasuna gauza txikiak idazteko, «niretzat gehienbat». «Maiteri erakutsi izan dizkiot eta gustatu egiten zaizkio, ematen duenez, eta horregatik proposatu zidan idazteko». Gustura gelditu dira emaitzarekin. «Zintzoak izan gara gure pentsatzeko moduarekin eta zerbait garbia atara zitzaigun», azaltzen du Maitek.

## Aurrera begira

Elkarlanarekin gustura zeudenez, Etxepare Sarira aurkeztu zuten lana bukatu baino lehen beste zerbaitetan pentsatzen hasi ziren. Atzobertan elkarrigai bana proposatu zieten etorkizunera begira.



Maite eta Mikel Gurrutxaga anai-arrebak. I. GARCIA

«Saria jasotzeak ere ilusioa egiten du», gaineratzen du Mikelek.

Buruan dituzten ideien artean, bat aspaldikoa da. «Memento batean bukatuko dugu», azaltzen dute. «Helduentzako izango litzateke, makarragoa», dio Mikelek.

Etxepare Sariaren oinarrietan zehazten zenez, haurrei zuzendutako albuma izan behar zuen. Maiteren ustez, haurrei zuzendutakoak direnak ere helduentzat baliagarriak dira: «Nire ikuspuntutik haurrentzako liburuak askotan

irakurri ditzake heldu batek. Gozatu eta ikasi dezake ere. Egin dugun lana niretzako adin guztieki zuzendutakoa da».

Mikelek gaineratzen duenez, «gu helduak gara eta ez dakigu zenbateraino konektatu ahal dugun 5, 6 edo 7 urteko haurrekin. Nahiz eta haurrei zuzenduta izan, agian lehenago konektatzen duzu helduekin».

Epaimahaiaren iritziz, Gurrutxaga anai-arrebek aurkeztutako albuma, «irudiei dagokionez, au-

sarta da. Xarma berezia lortzen du irudiaren eta idazkeraren arteko uztardura liluragarriarekin». Maitek zehazten duenez, irudien auserdaria hori ukitu zinematografikoa dutelako izan daiteke: «Ilustrazioetan plano ezberdinak daude, lehenengo eta bigarren mailan dauden gauzekin jolastan da. Goitik begiratutako ilustrazioak ere badaude».

Ilustratzaile amezketarrak dioenez, «egin dugun lana oso gustukoa dut eta banuen fedea beregan.

## ETXEPARE SARIA

Nafarroako hainbat toki entitatek, haien Euskara Zerbitzuen bitartez, Nafarroan literatura sari esanguratsu baten hutsunea zegoela ikusirik, eta beraz, literatur lehiaketen alorrean erreferentzia izanzen zen saria sortzeko xedearekin, Etxepare Literatur Sariak antolatuta zituzten 2004an. Etxepare Sariak haur, gazte eta helduentzako literatura saritu zuten bi ediziotan.

2006tik aurrera, Etxepare haurrentzako albumak sortzeko beka bihurtu zen, euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzeko helburuarekin. Izan ere, euskaraz argitaratzen diren album gehienak itzulpenak dira, eta ez euskaraz sortuak. Euskarazko album ilustratuen sorrera bultzatzen duen beka edo lehiaketak urriak dira, eta alde horretatik, ekimen berritzailea da.

2009an Etxepare Beka izateari utzi eta Saria bilakatu zen. Horiek horrela, lehiatu diren albumak bukatuta aurkeztu dituzte.

Ez genekien nola hartuko zuten epaimahaiakoe, etxeko eta lagun zirkulutik kanpo ez baiken erakutsi. Epailak objektiboak izaten saiatuko dira, baina gero bakoitzak bere irizpideak izaten ditu». Ez bazuten saria irabazi, obra argitaletxe batengana eramateko asmoa zuten.

Hain justu, lana argitaratzea da saririk poz handiena ematen die-na. «Lan bat egiten duzu etxean eta gero hori liburu batean azalduko da», dio Mikelek. «Liburua ikustean, 'hau guk egin dugu' esatea». Maitek gaineratzen duenez, «behin liburua ikusten dugunean konturatuko gara sariaren garrantziaz».





# Ekuadorreko istorioekin hasiko dute Aste Misiolaria

**Ibarra** » Ibarrik Misiio Taldeak antolatu du, urtero bezala; ekitaldi guztiak parroakiko lokaletan izango dira.

**ERREDAKZIOA**

Gaur hasiko da urtero Ibarrik Misiio Taldeak antolatzen duen Aste Misiolaria, eta hilaren 19an amaituko da San Bartolome parrokiaren 10:30ean egingo duten meza-ekin. Ekitaldi guztiak parroakiko lokaletan izango dira.

Gaur, hortaz, Ekuadorreko *Hegoaldeko Ahotsak* lana eskainiko dute eta datozen egunetan afari-solidarioa eta hitzaldiak izango dira. Aipatzekoa da astelehenean, hilaren 15ean, izango duten bisita. Izan ere, Fiare Banka Etikoa-ko Juan Garbibi izango da Ibarrian.

Garbibi «jarduera ekonomiko etikoa» nola gauzatu daitekeen argituko du eta Fiare Banka Etikoa

proiektuak eskaintzen duena azalduko du.

Bestalde, Ibarrik Misiio Taldeak batzar orokorra egingo du hilaren 16an, 20:00etan, parrokiako lokaletan. Bertan 2009ko balantze ekonomikoa, iaz finantzaturako proiektuak eta zuzendaritza landuko dituzte.

**» EGITARAUA**

- **Martxoak 10, gaur.** 20:00etan Ekuadorretik *Hegoaldeko Ahotsak*.
- **Martxoak 12, ostirala.** 20:30ean Afari solidarioa (10 euro).
- **Martxoak 15, astelehena.** 20:00etan Juan Garbibi Fiare Banka Etikoa izango du hizpide.
- **Martxoak 17, asteazkena.** 20:00etan Antxon Andueza salesianoaren hitzaldia: *Europa Iparaldeko emigrazioa: Errumaniaren kasua: Zergatik? Ondorioak? Adaptazioa.*
- **Martxoak 19, osteguna.** 10:30ean Meza San Bartolomen.

# Hezkuntza «euskaldunaren» aldeko manifestazioa

**Tolosa** » Ikasle Abertzaleak-ek deitutako protestaldia etzi izango da 12:30ean Triangulo plazatik abiatuta.

**ERREDAKZIOA**

Ikasle Abertzaleak-ek azken hila-beteetan «Nafarroan eta EAEn hezkuntzak pairatu dituen erasoak» salatatu ditu. «Isabel Celak -EAEko Hezkuntza sailburuak eta Alberto Catalanek -Nafarroako Hezkuntza kontseilariak- euskaldunon aurkako jarrera erakutsi dute beraien azken erabakietan.

Izan ere, hezkuntza eredu berri baten aldeko apustua egin dute, non euskara nabarmen galtzen ateratzen den», argitu dute.

Beste hainbat «erasoren» artean «Euskal Herria terminoa erabiltzen duten eskolei diru-laguntzak kentzearena edo euskaraz gehien-ere edukien %50 ikastearena» aipatu dituzte.

Horiek horrela, «hau ez delako euskaldunok nahi dugun eskola ezta gutxiagorik ere», etzi, ostirala, manifestazioa egingo dute 12:30ean Tolosako Triangulotik abiatuta. Era berean, ikastetxeetan paroak deitu dituzte 12:00etatik aurrera.

# Elkarretaratzea azken lan istripua salatzeko

**ERREDAKZIOA**

LAB sindikatuak pasa den ostira-lean Alegiako Errotalde Fabrensa industriagunean izandako heriotza salatzeko elkarretaratzea egingo du gaur 12:00etan Alegiako udale-txearen aurrean.

Lasarteko 61 urteko pertsona bat hil zen lan istripuaren ondorioz, eta sindikatuaren arabera, honekin «16 langile dira jada Hego Euskal Herriaren aurten lanean izandako istripuen eraginez hil direnak».

Discovery AXN

70 kanalik onenak, hilean 14€ ordainduta.

Drain, gaztatu, zinema onenak, zuzeneko futbolak, zure telesail gustukoenez, dokumentalez, haurrentzako kanalez eta askoz gauza gehiagoz, zure uste baino gutxiago ordainduta.

Beste telebista bat merezi duzu.

euskaltel zuretzat

EUROSPORT

HISTORIA unicef

**zuntzOptikoa** Destu **1717** telefono-zenbakira edo zuzuz Euskaltelen webbira.

TE Digitala 10: hilean 14,42 €-tik aurrera Zuntz bidetako 12 H-ko Dusa duten bezeroentzat. TE Digitala 10ren oinarriko kutsa: 10 € + 5.30ko diru-kontua aplikatuko da Zuntz bidetako 2 H-ko Duzarri edo hainbat gogokarekin kuotan eta TE Digitala 10 zerbitzuaren kutsuan, berbera 2 probakuntza kontatuzkoan erabiltze gero. Diru-kontuzkoan ez daio sartzen. Zerbitzuak jasangarriak (RCS) % 10 erabiltze gero.

**AGURTZANE BELAUNZARAN**

**A**rgentina iparraldeak, Boliviarekin muga egiten duen tokian, La Quiaca, atzera begiratu eta Ushuaiaraino dauden 5.121 kilometroak datozkit burura. Munduaren bukaera Hegoamerikako lurralderik txiroena-ekin lotu artekoak, hari batekin josi banitu bezala, memorian harilkatuak ageri zaizkit; Patagoniak estepa amaiezina, lurrezko ozeanoa. Ardiak. Estantziak. Benettonak diren lurrak, globalizazioaren mundu eroan. Glaziarrak. Darwinen ikerketen toki izan zen Ushuaia eta Beagle itsasartea. Hegoalderaso jarri eta Antartida imajinatzeraino. Nola ahaztu, Ushuaiaiko, Tierra de Fuegoko, azken emakume Yamana, azken indigena. Cristina Calderon. Gerra zibiletik ihesi joandako familiartekoen ondorengoak Cordoban. Familiaren loturak uztartuz. Buenos Aires handia. Plaza de Mayo eta bertako amak. Tangoa. Matea. Iguzak ur jauzien jolasa, mitxeleta koloretuak eta Salta eta Jujuy probintzien magia.

**Hegoa iparrarekin josiz**

Argentina iparraldea eta Bolivia oinez lotu ditut nire bidaiaren abenturan. Bolivia amets etorri naiz, han behetik, Ushuaiatik.

Cochabamba! Cochabamba! La Paz! Oruro! Potosi, Potosiiiiiii... Nork oihera handiagoa egin dabilta Villazongo autobus geltokiko txartel saltzaileak. Jendez lepo dago geltokia. Anabasa nagusi. Potosira eramango nauen lehen txartela erosi diot txarteldegiko emakume muxu gorriari. Motxila bidai lagun, parez pare dut autobus hori handia. Nasan ere anabasa. Mutiko kaskamotzak sartu dit motxila maletategian, zaku patata, laranja eta barazki artean. Eskua luzatu dit, txanpongosez.

Eskailera traketsak ditu autobusak, tentuz ibili behar horietakoak.

Agurtzane Belaunzaran berrobitarra Bolivian izan zen 2009ko maiatza eta ekaina bitartean. Argentinatik iritsi zen hara, Ushuaia eta Bolivia oinez lotuz. Ondorengo lerroetan bitzakoaren kronika bildu du, zeinarekin 'Berria' egunkariko 2009ko Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa ere irabazi zuen.

# Pachamamaren seme-alabak



Txokolatea saltzen duten ama-alabak Sucreko kaleetan. A. BELAUNZARAN

Autobus barnealdeko panorama begi niniak zabal zabalik jaso dut. Boliviarrak dira denak, eta libre den besaulki bakarrek txartelaren jabe, ni neu. Diosal egin diet eta umiltasunezko begiradak jaso ditut ordainetan. Haurrak amaren magalean doaz, *awayuan* bilduta, oraindik zilborresteri loturik ba-leude bezala. Aurrean dudana emakumeak, zaku handi bat paratu du korridorearen erdi erdian. Zakutik, *tamalak* atera ditu, ondoan duen gizonari eskaintzeko. Ezta hitz-asperu handirik bien artean. Ezta gainontzeko bidaiarien artean ere. Isilik doaz. Begiradekin mintzo dira.

Autobusaren motor hotsak arrakalatu du siltasuna. Hartziko bide zakarrean, mendian gora goaz, amaigabeak diruditen bihurtu. Amarekin doan neskatok barre lotsati bat oparitu dit, amaren sorbaldan jarri du burua. Goxo-goxo doaz, estalkekin gorputza hotzetik babestuta. Ohituak daude boliviarrak autobusaren dantzara, sehaskaren kulunkan bezala, loaren besoetan dira ia denak. Leihoaren bestaldean pausatu dut begirada. Gau hotza, ilargi betearen argiak leuntzen du. Ilargia ere bidaide.

**Urrun da Potosi. Han goian, 4.067 metrota**

Eguzkiak ilargiari lekukotza hartzerako iritsi da autobus horia XVII. mendean Hegoamerikako hiririk garrantzitsuen eta aberatsena izan zenera. Urrun dira garai haiek. Urrunegi.

Cerro Rico de Potosi mendiak zaintzen du hiria. Aberastu zuen hiria. 1545. urtean mendiaren zainak zilarrezkoak zirela jabetu ziren. Urte gutxiren buruan, kolonizazioak bereak egin zituen. Londres eta Paris baino biztanle gehiago izatera iritsi zen. Handikien gotorleku, zilarren distrak itsututa.

**H Hilberriak****MANOLI OTEGI IZAGIRRE****ANDREA**

Martxoaren 8an hil zen, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Bere arimaren zuzendaria: Jesus M<sup>o</sup> Arrieta; anaia: Antonio (Antonina Ariztondoren alarguna); ilobak: Joxan eta Lutxi, Mila eta Castor, Arantxa eta Xabier, Miren eta Dean, Xabier; ilobak-bilobak: Kepa, Irigo eta Amaia, Idoia, Leire; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

**Martxoko elurretan joan zara, arima zuriko izaki miresgarria, zure itsutasunen ilunetik, betidanik etxekoetsasargia.**

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA MARIA parrokian elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidea: Olarrain Berri Baserria.

OHARRA: Gorputz bella Tolosako FUNERARIA ORIA Tanatorioan dago, gaur asteazkena goizeko 10:15ak arte.



**TOLOSA,**  
2010eko  
martxoaren 10a

**MARIA TEJERIA ITXASO****ANDREA**

(Marcos Iraola-ren alarguna)  
-Goian bego-

**Zuk erakutsi dezu ongi bizitza hori aurre egiteko bidea.**

**Bizitzaren gogortasunak eman dizun ohorea.**

**Dudarik gabe, guk ere jarraituko dugu horrelako adibidea.**

**Eskerrikasko denegatik amonaxko maitea.**

Zure bilobak: Alex, Beñat, Aritz eta Irati, Irati eta Axier, Jone, Nerea eta Beñat, Julen, Alexander, Aitor, Iurgi, Alaine, Aritz.



**ALBIZTUR**  
2010eko  
martxoaren 10a

**IMANOL MUÑOZ OTAEGI**

Beti egongo zara gure bihotzean



**Antza Etxegoien sendia**



**DONOSTIA**  
2010eko  
martxoaren 10a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95





Kokalera bat, koka hostoak lehortzen Las Yungas eskualdean. A. BELAUNZARAN

Mendiaren erraiak oraindik ere ustiatuak dira. Baina ez dira lehenengo garaiak Potosin. Eztainua eta zinka besterik ez dageratzen mendiaren zainetan, zilarrezko zain urri batzuk kasu. Meategiz josia, mendiaren sabela labirinto bat da. Labirinto ilun horretan, bizitza esperantza 45 urte bitartekoa duten 15.000 potosiarrek egiten dute lan. Goiz hasten dira lanean, bizitzan goizegi, gazteegi, 15 urteko muti-koak tartean, mendiaren barneko labirintuan, eguzkitik eguzkira lanean, ilunpetan. Meategiko langileek, koka mastekatzeko dute eta alkohol purua edan. Lan eguna arindu asmoz. Meatze bakoitzak, badu toki sakratu bat. Bertan, mendiari, *Pachamamari*, ofrendak egiten dizkiote. Zainetako zink, eztainu eta zilar jarria inoiz amaitu ez dakion. Bizitzari lotzen dien jarria.

Potosi hiria malkartsua da. Koloniala. Koloretua. Hotza. 4067 metroara, bihotzak gelditzeko eskatzen du, arnasa sakon hartu eta arkitekturez gozatu besterik ez dago.

Boliviako tokirik zoragarrienak, duda izpirik gabe, merkatuak dira. Kolorez beteak. Identitatez. Mugimenduz. Zaratez. Emakumez. Merkatu nagusian, emakumeek bazkari bikainak jartzen dituzte. Mani (kakahuete) zopa eskatu eta ondoan gizon berritsu bat eseri zait. Cerro Rico dugu parez pare, gure hizketaldiaren testigu. XVII mendeko Potosiko historiari gogatu dit belarria; Burges tituluak

zilarrekin erosi edota etxeko baxera, paretak eta kaleak zilarrezkoak zirenekoak kontatu dizkit. Agurtzean, memorian dantzangeroi zaidan hauxe esan dit: «Pero hoy la pobre Bolivia está sentada en una silla de oro». Gaur, Hegoamerikako hiririk txiroena. Historiak gaztigatua.

#### Potositik, Sucre. Koloretako hiritik, hiri zurira

Potosiko klima gogorretik ihesi, Sucre zuten bigarren bizileku aberatsek. Garai haietako zantzuak diraute arkitektura eta populazioan. Nekazariak eta kaletarrak nahasiak. Pobreak diruz lehenak, aberats diruz bigarrenak. Sucre hiriaren independentziaren 200 urte mugagertu da eta hiri zuria, zuriz margotzen ari dira. Egun handia da sucretarrentzat, indar politiko guztiak bilduko dira. Bat izan ezik, garrantzitsuenak. Sucre Evorekin haserre baitago. Baita Evo Sucreekin. 2008an nekazariak protestak egin zituzten Sucren eta oposizioak makilaka hartu zituen. Orduz geroztik, txinpartak airean bizi dira, Ebotarrak eta sucretar diruz aberatsak.

Hiri zuria ordea, erreallitate ezberdinak ditu gordeak. Ezin denak zuritu. Kale zurietan, neska muti-koak lanean dabilta. Alejandrok, taxiak garbitzen ditu. Hugok eta Cristianek hilerriko hilarriek distira ateratzen die. Silviak merkatu nagusian egiten du lan. Erdaraz hitz egiten ez dakien emakumeak,

bere 6 urteko alabatxoarekin txokolatezko gozokiak saltzen ditu kalean. Samuelek 9 urte besterik ez ditu eta goizean etxetik bere egurrezko kaxarekin ateratzen da. Sucreko plaza nagusian egiten du lan. Eguerdiaren jangela komunitarioan bazkaldu eta arratsaldetan eskolara poz pozik joaten dela esan dit. Goxo-goxo proposatu diot, bazkaldu aurretik eskuak garbitu behar direla. Berak ere goxoko erantzun dit, irribarretxo batekin «señorita, yo lustró botas y esto siempre está aquí». *Lustrabotasa* da Samuel. Zapata garbitzailea.

Hauxe Boliviako umeen erreallitate. Nire barruan berriz, korapiloa korapiloaren gainean. Beharrrak, umeen lana legitimo egiten duen munduan.

#### Sucre zuritik, Uyuni zuria

Uyuni, Pachamamaren opari. Munduko gazteirik handiena. 3.650 metro itsasoz gaindi, 12.000 metro karratu zabalera gozategia. Ohiko ibilbide turistikoetako ihes eginez, Llyca izeneko herritxora eramango nauen autobusaren zain nago. Gidariari bere ondoan esertzeko baimena eskatu eta hitz eta pitz egin ditugu 168 kilometro. Gatzeko desertuan, edo ozeano zuria ote? Zuritasun amaiezina orzi mugarekin topo egiten dueneraino begiak galdu arte. Herriaren sarrerako adobezko ormetan, Evori ongi etorria ematen dioten idazkiak daude. Autobusetik jaitsi

eta begiratu mesfidatiak jaso ditut. Lotarako toki xume-xume aurkitu dut, kostata baina. Ez dago ur berorik eguzki izpiek haize lehor hotza goxatzen ez duten lekuan. Kalera atera eta leihotik zelata egiten didatela ohartu naiz, alderrai bat naiz beraien erresuma partikularrean.

Hutsik daude kaleak, hotzalatza da, alimalekoa. Iluntzea iristear da eta eguzkiaren argiarekin batera etxeratu dira denak. Baita ni ere. Bidean astoen arrantzak girotu du momentua. Goizean, emakume langileekin esnatu naiz. *Quinoa* zereala, hankekin zapaltzen ari dira, xehatu eta *mucuna* egiteko. Emakumeak beti lanean Bolivian.

#### Gatzeko desertutik, La Pazera

Boliviako hiriburua munduan denik eta hiribururik garaiena da. Babeleko dorrean garaien, 3.610 metroara. Hiriko etxe garaien tartetik Andeetako mendikatea ikusten da. Illimani mendia nagusi. Hiriri ura ematen dion mendia.

Kontrasteen hiriburua; eraikin garaiki, banketxeak, indigenak, merkatuak non nahi, El Alto auzoa han goran, plazak, burua estalita duten zapata garbitzaile gatzek, familiaren duintasuna buru estalkiarekin gordez. Liburu saltzaileak, boliviarrak. San Frantzisko katedral harri gorria, barruan, arte lan ederrez gain, indigenak belu-niko otoiitzean. Zein Jaungoikori egingo diote eskari, hezur haragitzakoari hala Pachamamari, Ama Lurrari?

#### La Pazeko hotzetik, Coroicoko berora

3.610 metrotatik 1.000 metrotara. Gailutadako orografia lehorretik, Coroicoko mendi berdeetara.

Landareta anitza, errekek, koka soroak, *kokaleroak* eta harrigarriena, bertako biztanleen bisaia. Azal beltz, ile kizkur afro-boliviarrak. Kolonialismo garaian Afrikatik deserrotu eta meatzeetan esklabo aritu ziren. Geroago, esklabutzak legitimitate galdu zuenean, klima goxoago baten bila abiatu ziren Oruro eta La Pazeko probintziatik, Las Yungaseko eskualdera, Coroicora.

#### Mendi berdeetatik, laku sakratua: Titicacara

Pachamamak, Boliviari egindako oparirik magikoena, Titicaca lakua da. Laku sakratua. Isiltasuna entzuten den tokia. 3.800 metro tarraitsasoaren pareko. Aurrez aurre, Andeetako mendizerra elurtuak. Titicacako urak, Bolivia eta Peruko lurretan. Eguzkia eta Ilargiren irlak Boliviako muga.

Batzarrean erabakiak hartu eta elkar lanean egiten dute lan, Evo presidentearen hizkuntza, *aimara* (Boliviako indigenen hizkuntza), mintzo diren biztanleek. Emakume zein gizon auzolanean.

Nekazaritza eta arrantza ekonomia oinarri dute. Harritzko paretak, Inka garaiko terraza sistemak, landa eremu malkartsuetan. Quinoa, patata, artoa, babak, babarruna, alpaca eta garia irlako lurretan. Arrantza eta arrantzaleak gainbeheran.

Egunez, ordu luzez sarea eskuz askatu eta gaez ezkutuan, Peruko uretan sartzen dira. Boliviako urek ez baitute arrain nahiko. Arrantza-leek, badaezpada ere, egunero lakuari ofrendak egiten dizkie. Urri-tuz doazen arraiak desager ez daitezten. Pachamamari eskainitakoak, berak ordainetan emango dien esperantza.



Haurrak amaren altzoan doaz 'awayu'a'n sartuta. A. BELAUNZARAN

**@ Zurea da hitza.** Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera duzu gure webgunean *Zurea da hitza* izeneko atalari esker. Berriaz gain, aukeratzeko duzun argazkia sartzeko aukera ere baduzu. Eskualdeari buruzko berriak, keak, iradokizunak nahiz bitxikeriak izan daitezke sar ditzakezunak. Halaber, sartuta dauden berrietan iritzia ere eman dezakezu. Bestalde, inkesta eta eztabaida desberdinak ere izaten ditugu zeuen iritzia ezagutu ahal izateko:  
[www.tolosaldehyta.info](http://www.tolosaldehyta.info)

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritza edota  
Euskal Filologian  
lizentziatuak  
edo ikasleak behar ditu  
lan poltsa osatzeko.**

Interesatuek deitu: 661 67 88 17



5°  
0°

GOIZA OSKARBI  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 6°  
HOTZENA 2°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Mahai-ingurua

■ **Villabona.** Espetxeen egoeraren inguruko mahai-ingurua gaur Satorra parrokia lokalean 19:00etan, parrokiako espetxe pastoralak antolatutako jardunaldien baitan.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** Ahoz Aho Jaialdiaren baitan HHI-EPAren egoitzan bihar 16:00etan Ana Cristina Herreros madrildarraren *Ana Griot* eta Jhon Ardila kolonbiarraren antzezlanak. Amartzotzen 18:00etan, aldiz, Iñaki Carretero euskaraz ariko da eta San Esteban auzoan 19:30ean Peruko Mercedes Carrion eta Mexikoko Jerman Argueta entzuteko aukera izango da.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar kalea. 112.

### » TELEBISTA

**28 Kanala**  
**08:30.** Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Klik. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erlo klip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Otaegi Txikon apustua. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Klik. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erlo klip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Otaegi Txikon apustua. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafet' erdi alkatearekin. **18:30.** On ein! **19:00.** Planik bai. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Kultur zulo.

(\*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizuna.



## Zabaldute Merkatu Txikia

**TOLOSA** ● Atzo zabaldute zuen Amartzotzen Elkarteak urtero antolatzen duen Merkatu Txikia Tolosako Kultur Etxean eta jende asko gerturatu zen, gainera. Aurten 9.000 euro jaso nahi dituzte Nikaraguara bidaltzeko. Elkartearen helburua herrialde honetako 18 eta 50 urte bitarteko 20

emakumeri goi-mailako ikasketak egiten jarraitzeko aukera ematea da. Merkatu Txikia igandera arte egongo da zabalik; ostirala arte 17:00etatik 20:00etara, larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta igandean 10:00etatik 14:00etara. I. TERRADILLOS

## A Agurrak



### Zorionak Loretxu!

Badakizu gaur, orain dela 18 urte Inguruneako azterketa nuela? Ondo pasa zure eguna!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: